

DATOS DEL PARTICIPANTE

D./DÑA. Fernando Menor Vives		AÑO DE NACIMIENTO 1974
EMAIL fmenor@gmail.com	TELÉFONO 677613670	NACIONALIDAD Espainiarra
CO-AUTORES Tony Menor Vives		

DATOS DE LA OBRA

CATEGORÍA DE GALERÍA		
CATEGORÍA Cortometraje		
TÍTULO Bost Gorrian / Cinco en el Rojo		DURACIÓN (MINUTOS) 3:43
IDIOMA/S Euskara eta gaztelaniaz		AÑO DE REALIZACIÓN 2018 eta 2019ean

REGLAMENTO, PREMIOS Y BASES DEL CONCURSO

El participante descrito en la página anterior acepta las siguientes bases y reglamento:

LEHIAKETAREN OINARRIAK:

CIMASUB • Real Sociedad Futbol Taldeko Urpeko Jarduerak antolatutako Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloaren **44. edizioa 2020ko azaroak 19, 20, eta 21 egunetan ospatuko da**, ikus-entzunezko lanen bitartez urpeko mundua zabaltzeko helburuarekin. Hala, argazkigintza, film-labur eta dokumentalen lehiaketa aurkeztu da hurrengo oinarriekin: Lan guztiak originalak izan behar dira eta [formulario edo parte-hartze txostena atxikitu beharko da](#). Argazkien kasuan, hauek ez dute inolako sinadura edo identifikaziorik eduki behar. Lanak entregatzeko epea **2020ko Irailaren 15an bukatuko da**, egun honetatik kanpo geratzen diren lanak baztertuko direlarik. Lehiaketan parte-hartzeko ezinbestekoa izango da [parte-hartze txosten edo formularioa](#) behar bezala beteta izatea. Aldi berean, oinarriak, lehiaketaren arauak eta lanen egileen eskubideak ondo irakurtzea gomendatzen dugu. Lanak hurrengo parte-hartze txosten edo formularioarekin batera bidali beharko dira. Behar izanez gero, epaimahaiak saritutako lanen jabetza intelektuala eskatzeko eskubidea izango dute.

ARGAZKI LEHIAKETA

Lehiaketa honetan edozein pertsona ahal izango du parte hartu. Horretarako, **5 argazki aurkeztuko dira, JPEG formatuan eta 12 Megapixelean tamainan gutxienez (4.200 x 2.800 pixel gutxi gorabehera)**. Argazkiak 2 urte baina gutxiagoko antzintasuna izan beharko du.

Lan guztien gaiak urpeko edota ur-barnekoak izan beharko dute, argazkiak betiere itsas-azpian egindakoak izanik. **Hauetan, galeria oro har, argazkien kalitatea, espezie ezberdinen agerpen eta aniztasuna, argazki teknika (argazki mota, iluminazioa, enfokea, filtroak etab.), estetika, sorkuntza eta argazkiak ateratzeko zailtasuna baloratuko dira.**

Argazki hauetan ezingo dira ez sinadura ezta logotiporik agertu eta oinarrizko ukituak bakarrik onartuko dira: doikuntza, distira, kontrastea, fokuratze-maskara, etab. eta gehienez %20eko murrizketa edo mozketak.

Espezieei egindako tratu txarren edota manipulazioen susmoak dituzten eszenak ez dira baliozkotzat joko. Saritutako argazkietakoren bat iruzur-mota batean erori litekeelako susmoa izanez gero, frogaketarako epaimahaiak egileari RAW fitxategia eskatzeko eskubidea izango du.

SARIAK:

- **1º saria 5 argazkiko bilduma onenarentzat: urre-baranda + txapela + GIPUZKOAKO DIPUTAZIO FORALAREN ORAIN GIPUZKOA Saria, 300€.**
- **2. saria: zilar-baranda.**
- **3. saria: brontze-baranda.**
- **Kantauri itsasoan egindako 5 argazkiko bilduma onenei sari berezia: baranda zuria + txapela + OSI DONOSTIALDEA Saria, 200€.**
- **Sari berezia urpeko kontaminazioaren denuntzia gai duten 5 argazkiko bilduma onenei: baranda zuria + GUIF Saria 200€.**
- **NOVEDAD: Se establece un premio especial MUJERES FOTÓGRAFAS para el mejor trabajo realizado por una mujer, con barandilla blanca.**
- **NOVEDAD: Se establece un premio especial JÓVENES PROMESAS para el mejor trabajo amateur, con barandilla blanca.**
- **Epaimahaiak lan batek lortutako inaktuagatik edo bestelako arrazoigatik beste sari bat emateko eskubidea (ez beharra) du: baranda zuria + txapela + mailaren arabera gehienez 200€.**

DOKUMENTAL LEHIAKETA

Ikus-entzunezko lanek urpeko irudiak agertu beharko dituzte. Atal honetan bi modalitate bereiziko dira:

- **DOKUMENTAL MOTZAK, 15 minutuko iraupenera arte.**
- **DOKUMENTAL LUZEAK, 15 minutuko iraupena baino gehiagokoak.**

Gehienez **15 Gb-eko tamainadun MP4 formatuko artxiboak onartuko dira eta hauek 1920x1080 (FullHD)-ko resoluzioa izan beharko dute**. Bideoak kalitate handian proiektatzeko baliozkoak izan beharko dira. Jasotako materialak kalitate nahikoa izango ez balu, CIMASUB-eko Batzorde Antolatzaileak jasotako lanaren parte-hartzea ukatzeko eskubidea gordetzen du.

Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina film aurkeztu ditzake. Horretarako, lan bakoitzeko parte-hartze formulario edota txosten bat aurkeztu beharko du, lan bakoitza bere fitxa atxikituta izanik.

Filmaz gain, **laburpen bat** aurkeztu beharko da testu hori programan gehitu ahal izateko eta gure webgune eta sare sozialetan ([parte-hartze formularioa](#) eskatzen den moduan) egiten ditugun argitalpenetan jarri ahal izateko.

CIMASUB-aren hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira. Hala ere, beste jatorrizko hizkuntzetan igorri ahal izango dira dokumentalak, betiere Batzordeak egokia, interesgarria edo bidezkoa ikusten badu. Hala, bikoizketak edota azpтитuluak egongo lirateke (autoreak jabetza eskubideak onartu beharko lituzke aurretik). **Horretarako, parte-hartze fitxarekin batera gidoia denbora kodearekin eskatuko da.**

DOKUMENTAL MOTZEN SARIAK, 15 MINUTUKO IRAUPENERA ARTE:

SARIAK

- **1. saria: urre-baranda + txapela + DONOSTIA KULTURA Saria (500€) + OCEANIC Saria (valorado en 5.445€) Indonesian itsas-bidaia (kruzeroa) + %50eko deskontua bidai lagunarentzako + doako Nitrox-a biontzat.**
- **2. saria: zilar-baranda.**
- **3. saria: brontze-baranda.**

DOKUMENTAL LUZEEN SARIAK, 15 MINUTUKO IRAUPENA BAINO GEHIAGOKOAK:

SARIAK

- 1. saria: urre-baranda + txapela + REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA Saria (1.000 €) + ONDINA Saria (valorado en 5.775€) Indonesian itsas-bidaia (kruzeroa) + %50eko deskontua bidai lagunarentzako + doako Nitrox-a biontzat.
- 2. saria: zilar-baranda.
- 3. saria: brontze-baranda.

Sari hauetaz gain, hurrengo sari bereziak ezartzen dira:

- Sari berezia Kantauri Itsasoan egindako lan onenari: baranda zuria + txapela + AQUARIUM DONOSTIA Saria, 400€.
- Sari berezia denuntzia ekologikoa egiten duen lan onenari: baranda zuria + txapela + 400€ko Saria.
- Kazetari-erreportaje onenari sari berezia: DIARIO VASCO trofeoa + txapela + 200€.
- **NOVEDAD: Se establece un premio especial MUJERES FOTÓGRAFAS para el mejor trabajo realizado por una mujer, con barandilla blanca.**
- **NOVEDAD: Se establece un premio especial JÓVENES PROMESAS para el mejor trabajo amateur, con barandilla blanca.**
- Epaimahaiak lan batek lortutako inpaktuagatik edo bestelako arrazoiegatik beste sari bat emateko eskubidea (ez beharra) du: baranda zuria + txapela + mailaren arabera gehienez 200€.

Epaimahaiak saridunekin zuzenean komunikatuko da email bitartez eta aldi berean, hedabide ezberdinetan ezarriko dira hauen izenak (webgunea: cimasub.com)

ARAUDIA

Lehiaketako izen-ematea behin betikoa izango da [parte-hartze fitxa](#) edo izen-emate formularioa jaso ondoren. Epaimahaia subiranoa da sari-banaketari dagokionez. Arau hauek ekitaldiko babesleak egindako moldaketek aldatuko lituzke. Epaimahaiak ez ditu publizitate tankerako edota kalitate gutxiegi lanak onartuko.

Maila edo modalitate batean kalitate gutxiegi lanak egongo balira, sari gabe geratu ahal izango da hau. Antolaketa-arrazoiengatik eta antolatzaileen eta parte-hartzaileen arteko komunikazioa hobetzeko, hauek gure webguneko blogera automatikoki harpidetuko dira parte-hartze formularioa betetzen duten momentuan. Honela berrikuntza eta nobedade guztiak jasoko dituzte, CIMASUB-aren edizio honen azken albisteak jasoko dituztelarik baita ere.

Egile eta jabetza eskubideen araudiaren arabera, antolatzaileek CIMASUB-en aurkeztutako lanak Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloaren jabetza artistikoko eskubide guztiak edo hirugarren entitateak izan litzakeen beste batzuetatik aske gelditzen direla onartzen dute. Egileek, bere parte-hartze fitxa betetzean, aurkeztutako lanak jabetza eta egile eskubideei dagokionez askeak direla bermatzeko konpromisoa hartzen dute CIMASUB-eko antolatzaileen aurrean.

Aurkeztutako lanen aurka sortu daitezkeen demanden aurrean erantzukizun bakarra egilearena izango da. Auzirik egotekotan, ezingo da inola ere CIMASUB-eko antolatzaileak arduraduntzat hartu. Parte-hartzaileek beren lanen bikoizketa baimentzen dute CIMASUB-aren artxiboetarako eta lehiaketan zehar erabiltzeko, baita CIMASUB-a sustatzeko edota CIMASUB-arekin erlazionatutako urpeko jarduerak, ekintza sozial nahiz didaktikoak bultzatzeko xedearekin ere.

Egilearen hautaketa behin-betikoak zango da. Lanaren erabileran egilearen izena aipatuko da baina betiere ez da sariaz gain konpentsazio ekonomikorik egongo honetan. CIMASUB • Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloan parte-hartzeak araudian ezarritako baldintza guztien onarpena inplikatzeko du.

Los trofeos y txapelas serán entregados a los galardonados asistentes al evento el último día en la gala de clausura. Ya no serán enviados por correo como en anteriores ediciones. En compensación se enviará un diploma digital acreditando el premio recibido. Los galardonados que nos visiten además están invitados a las dos cenas que celebraremos los días:

- Viernes, cena íntima para galardonados y patrocinadores, realizada en Sociedad Gastronómica y servida por miembros de la Sección de Actividades Subacuáticas de la Real Sociedad de Fútbol.
- Sábado, cena de clausura en restaurante Donostiarra para organizadores, galardonados, invitados, patrocinadores e instituciones.

DATU PERTSONALEN BABES-POLITIKA

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan (abenduaren 13koa) agindutakoari jarraiki, CIMASUB - Ciclo Internacional de Cine Submarino de Donostia – San Sebastian-k jakinarazten du gure formularioak betetzean borondatez emandako datuek konfidentzialtasun eta segurtasun osoa garantizatuta daukatela. Idorperen konpromisoa da datu pertsonalen sekretua gorde eta beharrezko kudeaketa egitea beraien galera, aldaketa edota baimendu gabeko erabileratik zaintzeko.

Era berean, zure sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta ukapen eskubideez baliatzea jakinarazten dizugu, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera, CIMASUB - Ciclo Internacional de Cine Submarino de Donostia – San Sebastián-ra eskaera bat bidaliz "datu babesa" erreferentzia gisa jarritz.

2020-09-14